

BERRIGARA

10. zenbakia JARDUN Elkarteak, Bergara 1995, azaroak 3

Eskalatzaile
abenturazalea

Jon Lazkano



CITROËN ZX



ION AUTOAK

Urarte, 10. Tfnoak: 76 47 49 / 76 47 73 Faxa: 76 54 27



Hil honetan, **ESKAINITZA**
DISDIRATSUAK aurkituko dituzu gure
modeloetan. Bisita gaitzazu eta proba
itzazu 95ko **CITROËN** auto zoragarriak!!



CITROËN XANTIA



BERGARAKO OSASUN Gida

ALBAITARIAK:

- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak). ☎ 76 43 29
- ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala). Telefono mobila. ☎ 908 77 17 32
- IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak) - Iribar baserria ANTZUOLA. ☎ 76 63 46
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika). 908 87 68 47 (Mobila) - Koldo Eleizalde, 28. ☎ 76 27 97

ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA Isabel - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN Victor - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre, 1 behe. ☎ 76 27 95
- BERGARA HAGIN KLINIKA - Bidekurutzeta 6, 2. ☎ 76 05 77
- GOROSABEL J. Alberto - Fraiskozuri, 5 behe. ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale 1, 1.C. ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi, 18 behe ezk. ☎ 76 07 66
- GIPIZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E.M. - S. Arrieta 3, 2.B. . ☎ 76 38 54

FISIOTERAPEUTAK:

- ARZAK Miren (Reeducacion Postural Global) - Masterreka, 7 4.C. ☎ 76 43 71

GINEKOLOGOA:

- SERRANO Doktorea - Ramon María Lili, 2. ☎ 76 59 39 - 72

MASAILARIAK:

- AGIRREZABAL Jose Jabier - Boni Laskurain 1, 2.A. ☎ 76 15 74
- AZPEITIA Irune - Telesforo Aranzadi 1, 2. ☎ 76 06 43
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain 5, 2.E. ☎ 76 03 78
- GIARTZU - Boni Laskurain, 3 behe. ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka 7, 3.A. ☎ 76 51 18

MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain 3, 1.B. ☎ 76 37 50

PEDAGOGOAK:

- IZETA Maribi (Gabinete psikopedagogikoa: logopedia, psikomotrizitatea) - Simon Arrieta 3, 2.E. ☎ 76 26 42

PODOLOGOAK:

- ALTUBE Edurne - Simon Arrieta, 2. ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak, z/g. ☎ 76 41 32

PSIKIATRA:

- GALLASTEGI Pablo - San Martin Plaza 2, 1.ezk. ☎ 76 26 64

PSIKOLOGOAK:

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). ☎ 76 53 13
- ZUBILLAGA, ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). ☎ 76 30 76

ERROTALDE JAUREGIA
30570 Bergara
Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:

BERDUN Elkarteak.
Masterreka, 13 Bergara.
Tfnoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Eredakzioa:

Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezar
Irene Larrañaga

Maketazioa:

Eneko Azkarate

Publizitatea:

Alex Azkarate

Karripidetzak:

Gorka Elorza

Testuen zuzenketak:

Esteban Plazaola

Mariñi Laskurain

Alex Labaien

Eredakzio kontseilua:

Gorka Elorza
Miguel Angel Elkoroberezar
Alex Labaien

Komikiak:

Enitor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Alex Ugalde

Banaketak:

Tuantxorri taldea

Tirada:

4.000 ale.

Irprintategia:

Beritu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

ISS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako erabakien eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

MIREIA LARRAÑAGA Herri Olinpiada Batzordekoa

- Zer erabaki zenu-
ten astearteko bileran?

- Bi kuadrilatako ordezkariek etorri ziren bakarrik eta jendearen interesa ikusita Gabonetako jaialdia ez antolatzea erabaki genuen. Pena handia ematen digu baina erabaki hori hartu beharrean aurkitu gara. Azken 2 urtetan arrakasta handia lortu duen jaialdi hori alde batera uztea gogorra da baina ez dugu beste irtenbiderik ikusten. Gu prest egongo ginatete antolakuntzan laguntzeko baldin eta kuadrilek pareta hartzeko interesa azalduko balute baina...

- Erabaki definitiboa al da?

- Ez dakit, komentatu dugu beste bilera bat egiteko baina ez dakit ezertarako balioko duen.



Astearteko bilerara etortzeko deitu genien eta oso erantzun eskasa jaso genuen.

- Beste ekitaldirik antolatuko duzue?

- Udako olinpidak behintzat ez. Orain 6 urte hasi ginen eta azken urtetan ez da egon lehen ematen zen gauza berezi hori. Pena bat izan da.

"Aurten Gabonetako jaialdirik ez antolatzea erabaki genuen astearteko bileran"

I T U R R I O N E T I K

Frontoiko paretak zuriz pintatzeko erabakia asteartean hartuko du Udalak

Frontoien berritze lanak bide onetik doaz eta azken ikutuak besterik ez dira falta ekainean hasitako lanei amaiera emateko. Oraindik ez da ofizialki erabaki zein kolorez margotuko den pilotalekua baina BERRIGARAK jakin duenez, seguruen zuriz pintatuko da, azken aldi berdez pintatuko dela zabaldu bada ere.

Erabaki definitiboa datorren asteko Hirigintza Batzordearen bileran hartuko da. Berriztatuko frontoian egingo den lehen jaialdia abenduaren 2an izango da, Udazken Kulturalaren programazioaren barruan Donostiako Eskola dantzataldearen ikuskizuna iragarri baita.

E S A N D U T E

"Alde batetik, edozein enpresak, berregituraketa bat aurrera eramane nahi baldin bada, lehenengo elkarriketa prozesua ireki behar du langileen ordezkariek eta presentatu egin behar dizkie erabaki hori justifikatzeko egin dituen estudioak.

Eta langileen iritzia entzun. Ez da honelakorik egin. Bigarrenez, lan baldintzei buruzko aldaketak Lan Delegazioan aurkeztu behar dira, eta hau ere ez da egin. Beraz, Patronatuaren jokabidea ilegala dela deritzogu"

**JUAN MARTIN
ELEXPURU
UNEDeko EKDKo irakaslea
EGIN**

"100.000 lagunengandik aurrera jokatzeko jokalariek guztiek gustatzen zaigu eta Bernabeura emaitza on bat lortzeko itxaropenarekin goaz"

**AGUSTIN
ARANZABAL
Realeko jokalaria
HERRI IRRATIA**



UN PASEO POR LAS NUBES

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30.

Asteartea: 19.30 (Ikuslearen eguna).



EL LIBRO DE LA SELVA

Igandea: 11.30.



LA HIJA DEL PUMA

Osteguna: 20.00.

Zinea

▼▼ **Alfonso Arauk** (*Como agua para chocolate*) zuzendutako filme honi esker, **Aitana Sánchez-Gijón** (*La Regenta* telebista saila) aktoreak Hollywoodera saltoa egin ahal izan du. **Keanu Reeves** famatuaren laguntzaz, beren amodioa aurrera eramateko bi gazteek gogor borrokatu beharko dute. Neskaren aita (**Anthony Quinn**) parean jarriko zaie. Donostiako Zine Jaialdiari hasiera eman zion filma.

▼▼ **Rudyard Kipling** idazlearen klasikoan oinarritutako beste filme bat matinalerako. Bertan gizakien artean jaio eta animalien artean hazten den mutiko baten istorioa kontatzen zaigu. Gauza asko ikasteko aukera izango du. **Cary Elwes** eta **Jason Scott Leerekin**.

▼▼ **Rigoberta Menchu** 1992ko Pake Nobel Sariak filme hau gerratik iheska ari diren errefuxiatuei eginiko omenaldia zela adierazi zuen. Besteak beste, Donostiako Zine Jaialdian Gazteriaren Saria irabazi zuen. **Ulf Hultberg**ek zuzenduta, **Angeles Cruz**, **Gerardo Taracena** eta **Elpidia Carrillo** dira errepartoburuan.

Deiak

▼ **Abdon Juaristiren** margoak Donostiako Echeberria Galerian (Zubieta, 20) larunbatera arte.

▼ **1944**an jaiotakoen anaiarteko eguna azaroaren 25ean. 7etan meza Santa Marinan eta ondoren afaria Lasan. Izen-ematea 76 50 64 (Itxasmendi taberna) edota 76 23 70 (Sánchez ileapaindegia) telefonoetan azaroaren 8a baino lehen.

▼ **1945**an jaiotakoen (66ko kintoak) afaria azaroaren 18an Txuringo jatetxean. Izen-ematea 76 10 49 (Peñalba), 76 27 83 (Phildar) edota 76 25 70 (Gube) telefonotan.

▼ **Otarra** Bio elkartearen baztarrak bihar larunbata 15.00etan Hernialdeko Kultur Etxean. Ondoren, afaria. Izen-ematea: 33 25 74.

Ogia

▼ **Igandea 5:** Mizpildi.

FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 3:** Mozos.
- ▼ **Larunbata 4:** Camacho.
- ▼ **Igandea 5:** Camacho.
- ▼ **Astelehena 6:** Puy.
- ▼ **Asteartea 7:** Guallar.
- ▼ **Asteazkena 8:** Estella.
- ▼ **Osteguna 9:** Mozos.

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Virago: Las criadas

Antzerki talde bergararraren bigarren lanaren estreinua

Virago antzerki taldeak "Las Criadas" izenburuko lana eskeiniko du gaur gaueko 10 t'erdietan Novedades aretoan.

Pedro Mujikak zuzentzen duen taldea 1992an sortu zen eta orain arte "Ensalada de entremeses" testu klasikoetan oinarritutako antzezlanak eta Jean Genet idazle frantziarraren "Las criadas" landu ditu. Azken honen aurre-estreinua uztailean izan zen. Bertan Marili Romerok (Solangeren papean), Leire Madariagak (Clara) eta Esti Millánek (La señora) hartzen dute parte. Argi teknikari lanetan Jose Mari García arituko da.

Pedro Mujikaren hitzetan, *"XX. mendeko lan oso famatua da Jean Geneten hau eta horregatik aukeratu genuen. Genetek teatroa, poesia edota entsaiuak tartekatzen zituen eta oso autore garantzitsua da"*.

"Las criadas" 1947an estreinatu zen Parisen eta



Marili Romero (Solange), Esti Millán (La señora) eta Leire Madariaga (Clara) izango dira Novedades aretoko taula gainean. Zuzendari lanak, berriz, Pedro Mujikak egiten ditu eta argi teknikaria, Jose Mari García da.

bertan gizakiaren sustraiak, elkarrekiko erlazioak edota gizartearen zentzua aztertzen dira. Pedro Mujikak argitzen digunez, *"bi neskamek beren nagusiarengan duten eragina eta*

biruren arteko erlazioak aurkezten dira lan bonetan eta uste dut drama bat izan arren oso entretenigarria izango dela ikusleentzat".

Bi urte lana prestatzen

Taldeak 2 urte eman ditu lana prestatzen. Mujikaren hitzetan, *"oso zaila izan da lana egokitzea testu asko daukalako"*.

Virago taldekoak larunbatero biltzen dira entsaiatzeko eta Bergarako emandariaren ondoren, inguruko herrietan ere "Las criadas" aurkezteko asmoa daukate.

Hala ere, Pedro Mujikak faltan botatzen du Udalaren aldetik laguntza gehiago izatea; *"Udaletxean ez dago antzerkiari zuzendutako partidariak eta baldintza hauetan oso zaila da bonelako ekintzak aurrera ateratzea"*.

Antzerkizaleek beraz zita bat daukate gaur gauean Novedades aretoan. Sarrerak 500 pezetatan jarriko dira salgai. ■

Udazken Kulturala

■ **Willibald Guggenmos**

Larunbata, 4, arratsaldeko 8etan.

San Pedro parrokian.

Sarerra doan.

Organujole alemandarrak Bach-ek organurako konposatutako lan osoa du bere errepertorioan. Baita Franck, Mozart, Mendelssohn edota Brahms-enak ere. Mundu osoan ibilia da.

Egitaraua:

"Grande chœur en Fa M". C. Franck.

"Intermezzo op. 118/4". M. E. Bossi.

"Pastorale op. 118/5". M. E. Bossi.

"Hora giocosa op. 132/5". M. E. Bossi.

"Prémire Meditation op. 20". Guilmant.

"Toccatà op. 104". Joseph Jongen.

"Orri berdeak" (preludioa). R. V. W.

"Final" (5me Symphony). L. Vierne.

**Virago antzerki taldea
Jean Genet idazlearen lan
klasikoan oinarritu da**



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

PESA: sardina lata (marka berria)

Gu Bergarako Aranzadi Ikastolakoak gara eta 7. mailan gaude. Aste honetan, urriaren 24tik 27ra, Eskoriatzako Museo-Eskola ikustera joan gara. Aste guztian oso bidaia txarra egin dugu: jende gehiegi urbano barruan, alde batetik bestera, zutik umeak ginelako...

Gaur, ostirala, urriak 27, gure gelari tokatu zaio infernua! Bidaia oso gaizki antolatuta egon da. Bazekiten hogeitapiku pertsona gehiago joan behar zirela, baina Pesakoak (enpresa) ez dira bidaiariek arduratu (beste autobus bat prestatu?). Istoria hauxe da; Eskoriatzatik Bergarara itzultzerakoan, gutaz aparte, beste jende multzo handia sartu da: ikasleak, motxila eta maleta guztiak lurtean laga dituzte (beste tokirik ez zutelako), langileak, etabar. Guztira, 70? edo gehiago?

Pilatuta joan gara, bata bestearen gainean, gure neurriren dauden heltzeko tokietara hurbiltzerik ez gunden jendea zela eta, goian daudenetara iristeko oraindik baba pila bat jan beharra daukagu. Haurrok baditugu bete-behar batzuk baina baita eskubide batzuk ere, berdin pagatu baitugu nahiz eta talde handi bat izan.

Espero dugu hurrengoan zerbitzu hau hobeto antolatzea eta karta hau zerbaitetarako baliagarria izatea. Eskerrik asko zuen arretagatik eta bidaiari zaretanok gurekin bat etorriko zaretelakoan...

ARANZADI IKASTOLAKO 7.

MAILAKO IKASLE ETA IRAKASLEAK

Victoriano G. euskaldunon eta bergararren etsai?

Jadanik ez da gauza berria Bergarako UNED ikastetxea arrisku bizian dagoela eta bertako Euskal Kultura Departamendua hiltorian aurkitzen dela. Egoera latz honek erantzule bat baino gehiago daukela oso ondo jakinda ere, bergarar euskaldun moduan PNV eta gure herriko alkatea den Victoriano Gallastegiren jarrera eta jokaera salatu nahi nituzke.

Begarako UNED ekonomikoki gestioatzen duen erakundea patronatu bat da eta bertako kideak Gipuzkoako Foru Aldundia, Bergarako Udala eta Kutxa. Ez dago gehiegi pentsatu beharrik hiru erakunde hauen atzean zein alderdi politiko dagoen asmatzeko. UNEDeko EKD desagertarazteko eta ikastetxea bera narru gorritan uzteko erabakia PNVko Gipuzku Buru Batzarrak hartutako erabakia da; erabaki guztiz politikoa beraz, eta ez ekonomikoa sinistarazi nahi diguten bezala.

Gure herriko alkateak bergararren interesei muzin egin eta bere alderdiaren eta bere pertsonaren interesei erantzuten dien jarrera hartu du.

Victoriano zure baietza eman zenien egoera hau sortarazi duen txostenari.

Victoriano, euskarak gaur egun oraindik, guztion indar eta ahaleginak behar ditu bizi-rik jarraitu nahi badu. EKDK izugarriko lana egin du euskararen normalizaziorako erabakiorra den formazioaren arloan Euskaldunok gure hizkuntzan jantziago egoteko aukera aparta izan dugu EKDKri esker. Bergarar as-

ko izan gara gure euskara bertan aberastu dugunak. Zure hitzetan bi arrazoi soilik entzun ditut euskaldunon eta bergararren aurkako erabaki hau justifikatzeko: Alde batetik, EKDKn dauden ikastaroak beste edozein euskaltegitan aurki ditzakegula esaten duzu. Hori gezurra da, Victoriano. Gainontzeko euskaltegietan EGA ikastaroak eskaintzen dituzte, baina zer diostazu beste ikastaroei buruz? Bestalde, kostua aipatzen duzu; Udalak UNEDi 10 milioi pezeta ematen dizkiola urtean eta hau garestia dela. Victoriano, zu zeu ere ez zara merkea, urtean 7 milioi ordaintzen baitzikizugu bergararrok. Egungo UNEDek ez ditu 10 milioi balio, baina zure buruak 7 bai, ezta?

Victoriano, zuri hizkuntza, hezkuntza eta kultura ez inportatzea zure kalterako da, baina ez zaitez bergararren eta euskaldunon etsai bihurtu, aldatu zure jarrera eta bultzatu euskara, gure kultura eta bergararren formazio aukerak.

AGURNE BARRUSO LAZKANO HBKO ZINEGOTZIA

Zuzenketa

Aurreko asteko erreportaia dela eta, Pili Arin Miguel Altuna institutuko ikasketa buruak argi utzi nahi du Libergier institutua ez dela Estatu Espainoleko institutuekin interkanbioak egitearen kontrakoa, baizik eta Leonardo programa gestioatzen dutenek nahiago dutela Europa erdialdeko estatuetako institutuen arteko interkanbioak egitea.

Tiira biraka

Black Troner: kubarra, 180 kilo giartsuak, lobotomia ebakuntza jasan ondoren berriz ere ringaren gainean...



Bere aurrean, EEBBk ordezkatzuz... Chuck Norris!!

Berriz ere haurrak kalean jolasten ikusteko...



ALEX UGALDE



Udalbatzak presoeng inguruko mozio alternatiboa onartu zuen

Asteleheneko ez-ohizko Plenoan ez zen HBk aurkeztutako mozioa aztertzeke aukerarik egon, aurretik EAJk, EAK eta PSE-EEk aurkeztutako mozio alternatiboa onartu baitzen HBren abstentzioarekin.

HBk, bere mozioan, Espainiako espetxetan barreiatuak dauden 15 bergararren egoera eza-gutzeko beraiekin bisita erronda bat egitea eskatzen zion Osoko Bilkurari. Tripartitoak mozio alternatiboa ekarri zuen Plenora. Bertan, salaketa konkretuak Gasteizeko Parlamentuko Giza Eskubideen batzordera bidaltzeko prest azaltzen da Udala, presoak bere jaioterritik gertuko kartzeletara ekartzea eskatzen da eta, azkenik, Parlamentuari presoak ekartzeko jentziotan has dadila eskatzen zaio. HBk mozioa aztertu ondoren botazioan abstentitu egin zen eta EAJ, EA eta PSE-EEren botoekin onartu zen.

Boto esplikazioan, HBk tripartitoaren mozioak ez ziela erantzuten adierazi zuen; "presoekin egoteko arazoren bat duzuela pentsa daiteke. Bestalde, presoak Euskal Herriratzea eskatzea zინismo butsa iruditzen



Asteleheneko ez-ohizko Osoko Bilkuran presoeng egoera aztertu zen.

zaigu, presoeng egoera PNVk eta PSOEn dis-pertsio politika baten ondorio baita".

Koldo Pereirak (EAJ), Gobernuko alderdien izenean, presoek eta beren familiek jasaten duten egoera injustoa dela salatu ondoren, HBk eskatutako bisita horiek beren egoera hobetzeko ezer gutxi egin dezakete la esan zuen. Era berean, HBri sentsibilitate falta leporatu zion Jose Mari Aldayaren egoera alde batera uzteagatik.

Aitor Aranzabalek (HB) zera erantzun zion; "serioak izan, ez zarete kapaz izan eta Aldayaren inguruko moziorek ekartzeko". Bestalde, Jesus Mari Garitanok (HB)

euskal presoek prestatzen zaien interesa eta Marruekoson atxilotutako gazteek Jauregi kontseilariak emandakoa konparatu zituen.

Plenoa amaitu ondoren, HBk Fraiskozurin deitutako "Euskal Herria askatu"ko konzentrazioan izandako 40 bat lagun eta udal ordezkarien arteko tirabirak izan ziren Plazan. Victoriano Gallastegi alkatea eta Javier Gabilondo eta Koldo Pereira EAJko zinegotziak eta Alvaro Esparza PSE-EEkoa Udaletxetik irten zirenean, manifestariak beren atzetik jarri eta pankartarekin Batzokiraino jarraitu zieten. Alkateak, jandako irainak eta bultzadak salatu ditu.

◆ Atxilotutakoak Alcalan

Aurreko astean ETaren kolaboratzaile izatearen akusaziopean atxilotu zituzten Iñaki Arenaza Garitano bergararra eta Patxi Olabarria Iza antzuolarra Alcalako espetxean dira Entzutegi Nazionalean deklaratu ondoren. Juan Jose Aranburu antzuolarra, beriz, Nancrales de la Ocaiko espetxean dago azken informazioen arabera.

◆ Bedelkarren ikastaroa

Bedelkarrek antolatuta, "Reduccion de gastos" izenburuko ikastaroa izango da azaroaren 7, 8 eta 9an 14.30etan Kultur Etxean. Argibideak 76 04 68 telefonoan.

◆ Erakusketa

Seminarioko museoaren inguruko erakusketa azaroaren 19ra arte izango da zabalik, astebarruan 6etatik 9etara eta astebukaeretan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

HILDAKOAK

Paulina Mardaraz Madariaga

Urriak 29, 82 urte

Jose Osa Elorza

Urriak 30

JAIOTAKOAK

Andoni Najera Narbaiza

Urriak 27



DEBA

GARAIA

INMUEBLE ETA FINANZA AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...

Irizar pasealekua, 2 behea

☎ 76 59 54 BERGARA

Deco-Textil

ZANGITU

Etixerako lantzeria

Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

◆ Presoen trasladiak

Gestorek jakin arazi digutenez, Bergarako bi preso kartzelaz aldatu dituzte. Xabier Oregi "Panti" Almeriatik Murciara eraman dute eta Pedro Belastegi, berriz, Algecirasen egon ondoren, Caceresen dago orain.

◆ Aranzadi Ikastolan ibilitakoen afaria

1970an jaio eta Aranzadi Ikastolan elkarrekin ibilitakoek bazkaria egingo dute azaroaren 18an Antxoni jatetxean. Interesatuek izena eman beharko dute Kortazarren azaroaren 11a baino lehen. Prezioa 3.500 pezetakoa izango da.

◆ Odol ateraldia

Bergarako Odol Emaleen Elkartek dei egiten du datorren asteazkenean, azaroak 8, arratsaldeko 7etan Seminarioko lokaletan egingo den odol ateraldian parte hartzeko.

◆ Elkarteen arteko tute eta mus txapelketa

Pasa den larunbatean lehen kanporaketak jokatu ondoren, datozen bi larunbatetan joan eta itzulerako honako partida hauek izango dira: Goxo Pe-Hermandad Pertxa, Santa Ana-Aitonak, Gorla-Pertxa elkarte eta Lasai Toki-Artatse. San Migelpe eta Txukun kanpoan geratu dira.

◆ Jarrairen manifestazioa

Bihar larunbata Jarraik deitutako manifestazio nazionala izango da 17.30etan Gasteizen. Bertan Jarraik azkenaldian jasandako erasoak salatu nahi dira.



20 bat lgun ari dira auzolanean Elosuko inguruetan.

Kapirixo eremu megalitiarrak berreskuratzeko lanetan

Brontze Aroko tumulo, dolmen eta trikuharriak dira

Kapirixo elkarteak Azkoitia, Soraluze eta Bergara artean dauden 16 eremu megalitiarrak berreskuratzeko lanetan hasi da. Dagoeneko bi igandetan izan dira Kapirixoko 20 bat lagun auzolanean Elosuko inguruetan. Deba Garaiko ondarea berreskuratu eta babestea helburu duen elkarte honek eremu megalitiarren ingurunea garbitu, panel esplikatiiboak jarri eta ibilbide didaktiko bat markatuko du. Honekin loturik, Kapirixo Aranzadi Zientzia Elkartearekin harremanetan jarri da Aranzadik erabiltzen duen sistema indikatibo bera edo antzekoa erabili ahal izateko.

Kapirixo sortu zenean, bere bazkide eta kolaboratzaileek, lehentasuneko proiektuen artean, eremu

megalitiarren berreskuratzea azpimarratu zuten. Tumulo, trikuharri eta dolmen hauek Brontze Arokoak dira eta azken urtetan nahiko egoera txarrean zeuden, eman zaien arreta eskasagatik batipat. Kapirixok kultur ondarea berreskuratu eta, bide batez, eremuen inguruko informazioa zabaldu nahi du, eremu megalitiarrek daukaten balore artistiko eta historikoa jakitera eman. Lan hauek 1.300.000 pezeta inguruko aurrekontua dute eta Kapirixok Bergarako Udala eta Diputazioaren laguntza jaso du.

Kapirixok interesa duten guztiei lan hauetan parte hartzeko dei egiten die. Igandean 8.30etan Beheko Estazioan bilduko dira beste irteera bat egiteko.

MUJIK

Burdinaki denda

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

TXUKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62
BERGARA

Lehortea dela eta arazoak izan dira hainbat baserritan

Kalean ez da ur faltarik Urkulu erdira dagoelako

Aurten jasaten ari garen lehortearen ondorioz, herriko hainbat autotan urarekin arazoak izaten hasi dira. Manantialek ohi baino ur gutxiago dakarte eta dagoeneko Udalak eta Garbile enpresak ura eraman behar izan dute hainbat baserritarara. Elosu, Ola edota San Prudentziotik deiak jaso dituzte depositoak hutsik daudelako. Lehortearren lekuko, orain hiru bat aste Alzasu elkartera ura eraman behar izan zen, bertako depositoa (280 mila litroko kapazitatea duena) ia hutsik zegoelako.

Urkuluko urtegiak ere beherakada nabaria izan du. garai honetan iaz bere kapazitatearen %71n zegoen Urkuluko urtegia eta aurten, berriz, %54an. Luis Mari Agirrek eman dizkigun datuak ere ez dira batere

pozarriak. Bere hitzetan, 1989-90 urteetatik ez zen hain sikute haundia ezagutzen Bergaran. Aurtengo urrian 12 litro metro karratuko besterik ez dira jaso. Iazko urrian 100 litro jaso ziren, 93an 160 eta 92ko urria, berriz, azken urteotako euri-tsuenaren gertuena izan genuen, 547 litro metro karratuko neurtu baitziren.

Aurtengo irailean, berriz, 102 litro jaso ziren, aurreko urteetan baino gutxiago; 94an 157 litro izan ziren, 93an 191 litro eta 92an aurten baino euri gutxiago egin zuen, 72 litro m2ko neurtuz.

Azkenik, abuztuari dagokionez, iazkoa aurtengoa baino abuztu si-kuagoa izan zen. Aurten 56 litro jaso dira, iaz 35 litro, 93an 96 litro jaso ziren eta 92an 84 litro metro karratuko.

◆ ONCEko kioskoari eraso larunbatean

Larunbat gauean ezezagun batzuk su eman zioten ONCE erakundeak Irizar Ibilbidean duen kioskoari. Ondorioz, kioskoaren aldeetako bat nahiko kaltetatuta geratu da baina kioskoa zabalik izan da egunotan.

◆ Oldartzen prozesua

Oldartzen prozesuaren 2. fasearekin jarraituz, datorren ostiralean, azaroak 10, bilera bat izango da 18.45etan Arrano Zaharrean.

◆ IHESaren inguruko jardunaldiak


IHESaren inguruko sentsibilizazio jardunaldiak izango dira datorren astean Bergaran. IHES Ekimenak antolatuta, astelehenean "Como una antorcha" erakusketa zabalduko da Kultur Etxean, asteartean 7etan mahai-inguru bat izango da eta ostiralean 18.30etan "El aceite de la vida" bideoa emango da.

◆ Sagardoaren eguna

Igandean Sagardoaren eguna ospatuko da Antzuolan. 11.30etan sagardogintza lehen usadiora erakutsiko da plazan, 12.30etan trikitilarien kalejira izango da, 15.30etan gartzainerrearen hasiera eta 18.30etan sagardoa eta gartzainerreak Maixa eta Itziarrek alaituta.

◆ Egineko mus txapelketa

Larunbatean 4retatik aurrera Egineko mus txapelketako kanporaketak jokatuko dira Belengua eta Oilgorra tabernetan.



Udalak eta Garbilek ura eraman behar izan dute herriko hainbat tokitarara.

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga


ANTZUOLA BERGARA

- Apaintekarako eta industriarako pinturak
- Paper margotuak
- Mokitak eta tapizatuak



LASA
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxa: 76 20 29



Gaur egun zikin eta hondakinez beteta dagoen Deba ibaian arrainak ikus ahal izango ditugu.

Deba erreka garbitzeko depuradora bat jarriko da Mekolalde inguruan

40.000 milioi bideratuko dira Gipuzkoako ibaiak errekupeatzeko

Deba ibaiaren garbitzeko Bergaran, Elgoibarren eta Deban depuradora bana jarriko da. Horrela jasotzen da Gipuzkoako Diputazioak eta Ur Kontsorzioak probintziako erreka eta kostaldea garbitzeko prestatu duten proiektuan. Egitasmo horren arabera 11 depuradora eraikiko dira datozen 10 urteetan Deba, Urola eta Oria ibaietan eta guztira 40.000 milioi pzt. bideratuko dira. Proiektua Gipuzkoako Diputazioak, Ur Kontsorzioak, Eusko Jaurlaritzak eta Europear Ekonomia Elkartearak finantziatuko dute.

Bergaran Mekolalde inguruan, Narbaiza enpresa ondoan, jarriko da

depuradora. Proiektua udaletan aztertu eta eztabaidatuko da eta egin beharreko alegazioak egingo dira datorren urteko hasieran azken onarpena eman aurretik.

Depuradora hauekin ibaietara isurtzen diren hondakinen % 80 garbitu ahal izango da. Esan dezagun, gaur egun ibaietara isurtzen diren hondakinen %60 herrietako ur beltzetatik datorrela eta gainontzeko % 40 industriek isurtzen dutela. Plan honetan jasotzen denaren arabera enpresek, jaurtitzan dituzten metal astunak eta zianuroa kontrolatu beharko dute eta ezin izango diuzte horrelako hondakinik erreketara isuri. Horretarako 5.000 milioi pzt.ko inbertsioak egin beharko diuzte Gipuzkoako enpresek eta Eusko Jaurlaritzak diru laguntzak emango dizkie.

Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea Ur Kontsorzioaren presidentea da eta berak esan digunez, "plan honekin erreka errekupeatzeko ditugu eta berriz ere arrainak ikusi ahal izango ditugu".

OILAGORRA

TABERNA

Barrenkale, 21 BERGARA



☎ 76 20 61

**PINTXO eta BOKADILLOAK
SEKULAKO MARTXA!!**

EUXEBIO II

Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92



gizon emakume

Barrenkale, 35 BERGARA

GURIA

Taberna

Bidekurutzeta, 5

☎ 76 20 34

CAMACHO

Drogeria

Usaindegia

Bidekurutzeta, 24 BERGARA

☎ 76 13 35

Osasuna

Korrika proba luzeak

- Behobia-Donostia hurbiltzen dela eta, nola prestatu daiteke 20 Km.ko korrika proba bat?

- Kasu bakoitza aztertu eta bakoitzaren egoera zein den jakin behar da. Oso garrantzitsua da baita argi izatea zein helburu lortu nahi dugun horren arabera jokatu ahal izateko. Eta guzti horrekin lotuta gu zein egoera fisiko, psikiko etab.etan gauden aztertu behar dugu honelako proba bat gertatzeari ekin aurretik. Hortik aurrera, gure helburua lortzeko jarriko ditugun medioak zehaztuko ditugu.


- Zeintzuk dira medio horiek?

- Entrenamendu egokia ezinbestekoa da. Edozein kiroletan bezala, zein kualidade behar ditugun eta kualidadeak zenbateraino landu behar ditugun ikusi behar da. Ezaugarri horien artean erresistentzia aerobikoa oso inportantea da eta osagarri bezala beste asko daude. Esate baterako flexibilitatea eta elastizitatea desberdintzen jakin behar da. Soka bat flexiblea izan daiteke baina ez elastikoa. Goma bat, aldiz, elastikoa eta flexiblea dugu.

- Entrenamenduetan gehiegikeriak egiten dela askotan...

- Jende askok uste du hilabete batez entrenatzearekin nahikoa izaten de-

la baina orduan agertzen dira sobrekargak, bizkarreko minak, artikulazio-takoak... Bakoitzak karre-rari begira bere helburuak izango ditu baina ez da komeni helburu altuak jartzea ezin badira lortu. Entrenatzen hastera-koan faseak izaten dira: lehenbizi bakarka hasten zara luzatze ariketak eginez (inplikaturak dauden giharrak lantzeko) eta hortik aurrera entrenamenduak bizitzen dituzu. Batzutan gerta daiteke 10 Km. egitera irten, kilometro bat 4 minutu ingurutan egin eta 140 bihotz taupada inguru izatea. Eta handik gutxira denbora gehiago behar izan distantzia bera egiteko



LUIS FERNANDEZ
(Korrikalari ohia)

eta hala ere taupada gehiago eduki. Kontraesana dirudi, baina hor baldintza asko sartzen dira (kargak, norbera nekaturak egotea, entrenamenduak gaizki antolatzea...).

- Bada entrenamendurako formularik?

- Hori esatea oso nekeza da. Hala ere gomen datzen da 3-4 hilabete lehenago entrenatzen has-tea, astero 3-4 egunez korrika eginez eta entrenamenduak tartekatuz. Bestalde, entrenamendua eta konpetizioa ez dira gauza bera eta entrenamenduak

gogoz amaitu behar dira, itotzeke. Eta estimuloak hartzen joatea ere garrantzitsua da: proba goizean izango bada goizez korritu noizean behin, erritmoa bizitu zenbaitetan...

- Janariaz ere asko hitzegiten da. Zer esango zenuke?

- Geure buruari zer ez dugun egin behar galdetu eta hortik jokatzeko hasi. Gehienetan gure esfortzuak desorekatuta daude eta nere ustez edozein elikadura mota baliogarria da baldin eta behar ditugun nutrienteak hartzen baditugu. Bestalde, aldateta haundirik egitea ez da batere ona. Ez baldin bazaude gauza bat gosaltzen ohituta, hobe da ez aldatzea.

- Korrika egiteko arroparik egokiena?

- Algodoizko erropa da onena eta zapatila erosoak erabiltzea ezinbestekoa da, ez bigunegiak ezta gogorregiak ere.

"Entrenamendua eta konpetizioa ez dira gauza bera eta entrenamenduak gogoz amaitu behar dira, itotzeke"



Behobia-Donostia bezalako lasterketa bat gertatzeko 3. edo lau hilabete lehenago entrenatzen has-tea komeni da, astero 3-4 egunez korrika eginez eta entrenamenduak tartekatuz.

"Trekkingak dirua ateratzeko eramaten ditut, niri gustatzen zaidana eskalatzea da batez ere"

Jon Lazkanok Bilboko agentzia batekin egiten du lan eta trekkingen bidez munduko tokirik berezienak ezagutzeko aukera izan du.

Jon Lazkanano

26 urteko mutilak argi du, eskalada du pasioa. Munduko mendi ugaritako hormetan gora ibilia izan arren, hamaika amets du. Patagoniako Fitz Roy edo Pakistango Branta Brakera igo nahi du; Antartidara joatea ere gustatuko litzaioke. Urtean bi edo hiru hilabete pasatzen ditu kanpoan eskalatzen eta dirua ateratzeko, besteak beste, trekkingak eramaten ditu. Aurten Pakistanen eta Iranen izan da.

Hasteko, esango diguzu zer den trekkinga?

- Gaur egun trekking hitza ibilaldi bat egiteko eta edozertarako erabiltzen da, baina berez mendikate haundietan

egun askotako ibilaldiak egitea da, bizi garen inguruetik isolatuz eta dendan lo eginez.

- Orain eskalada laga eta trekkingean hasi zara?

- Ez, ez naiz joaten

trekkinga egitera, taldeak gidatzera baizik. Niri eskalatzea gustatzen zait eta trekkingek dirua ateratzeko aukera ematen didate.

- Beraz, trekkinga zuretzat bizibidea da?

- Bai, urteko sasoi batean bai. Nik agentzia baten egiten dut lan eta agentziak Bilbon eta Bartzelonan ditu bulegoak. Agentziakoak bazekien trekkingak egiten diren inguruetan ibiltzen ginela eskalatzen eta deitu egin zidan. Horrela hasi nintzen.

- Trekkingeko bidaiak eskalatzeko aprobetxatzen dituzu?

- Bai, aurten taldeak baino bi hilabete lehenago, maiatzaren 30ean joan nintzen lagun batekin eta mendi bat igo genuen. Gehienetan trekkingak eta eskaladak toki berean suertatzen dira eta bidaiak aprobetxatzen dut trekkinga eramane eta eskalada egiteko. Trekkinga hasi aurretik edo bukatu ostean eskalatu egiten dugu.

- Zu trekkingetan nondik nora ibiltzen zara?

- Ni udan joaten naiz, normalean Pakistanera K2-ko oinarritzako kanpamendura -trekkingen %80 Asian egiten dira-. Pakis-

tango iparraldean ibilaldiak egin ez izan dut, Maruekosan, Nepalen... Aurten abuztuan Pakistanen eta irailean Iranen izan naiz. Irangoa tour turistikoa izan da.

- Gustatzen zaizu trekkingak eramatea?

- Gogorra da. Kanpotik begiratuta emango du oporretara joan eta kobratzea dela, baina ez da hala. Trekkingak guk antolatzen ditugu, eta askotan (ez beti) trekkingak azpiegitura kaxkarra duten herrietan burutzen dira, beraz baldintzengatik lana gogortu egiten da; bestalde, bidaiak garestiak izaten direnez jendeak exigentzia haundiak ditu eta maila oneko zerbitzua eman behar da; 28 egunetan eta 24 ordutan pertsona horiekin zaude eta gogorra egiten da. Horretaz gain erantzunkizun handia da talde bat zure esku izatea. Ni lan honetan ha-

si nintzenez urte asko zeramatzen lagun batek esan zidan berari diru berbera Bilboko bulego batean ordainduko balioke bulegoan pasako lukeela uda guztia. Nik ez nuen sinisten, baina orain konturatzen naiz ez zebilela oker.

- Zenbat balio du horrelako bidaiak batega?

- Guk dugun merkeena 280.000 pezetakoa da eta garestiena 494.000koa. Bataz beste, 350.000 pezeta inguruan dabilta. Dena dela, kontutan hartu behar da kostua ere handia dutela. Pakistango trekkingean esaterako 7 lagun eta ni ginen, eta 39 porteadore eraman genituen dena eramateko.

- Nolako jendeak hartzen du parte trekkingetan?

- Gidariak gain gutxienez 7 eta gehienez 15 lagun joaten dira. Normalean jendea banaka apunta-

tzen da, ez dute elkar ezagutzen. Ez dira dirudunak, soldata finko bat dutenak baizik -asko funtzionarioak-. Kultura maila ona izaten dute. Adinari dagokionez, 35 urtetik gorakoak dira. Tourretara, berriz, era guztietako jendea joaten da. Estatuan gehienak, bai tourretan bai trekkingetan, Kataluniarrak eta euskaldunak izaten dira.

- Emakumerik joaten al da?

- Gizonezkoak baino gehiago, horrelako bidaietarako ausartagoak dira. Iaz, esaterako, Indiako bidaiak baterako 16 lagunek eman zuten izena eta denak emakumeak ziren; Malira joateko beste bidaiak bat atera zen eta denak, 10 lagunak emakumeak ziren. Eta denak banaka apuntatu ziren, ez zuten elkar ezagutzen. Asteazkenean, esaterako, Bergarako 3 neska atera ziren Nepalera.

- Nolako da trekkingeko egun bat?



- Goizeko 4retan egun argi dagoenez jeiki, gosalduta eta bostetan edo irten egiten gara. Etapa finkoak daude eta bakoitzean 6-8 orduko ibilaldiak egiten dira, ordubeteko atsedena egitnaz delarik.

- Trekkinga modan dagoela uste duzu?

- Trekkinga baino gehiago bidaiak exotikoak, gure agentzian behintzat aurten boom handia izan da. Madagascarrera 3 talde atera dira, Iranera 2, e.a. Bidaiak moeta hau da gora doana. Trekkinga ere gora doa, baina poliki-gi, zailagoa baita.

- Pakistango trekkingean frantziarrek arazoak izan zenuzuten...

- Bai, kollado bat pasatzeko 4 talde elkartu ginen, 180 bat pertsona. Hainbeste jende ginenez denon artean elkarri lagunduz pasatzea erabaki



Kike de Pablo eta Josetxo Rodríguezekin batera Amin Brakkeko (Pakistan) 1.000 metroko paretan bat eskalatzen aritu da Jon Lazkano uda parte honetan.

MAHER
Biltegiak L.E.
 Oihal etxea
 Bidekurutzeta, 29
 ☎ 76 22 90 - 76 26 75

Usoa Pub

 ☎ 76 38 57
 Irala, 1

AGIRREBEÑA
 oinetakoak
 arropa denda
 lenzeria
 Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

genuen, bestela kaosa izango zen eta. Baina talde bat, frantziarrena, ez zegoen prest. Horrela, batzuek sokak ipini genituen, beste batzuek kendu, e.a. denok esku hartu genuen. Frantziarrek ez zuten ezertan lagundu, baina beste guztion lana aprobe txatu zuten. Guri ez zitzaigun ondo iruditu eta egin ez zuten lana ordaintzeko eskatu eta dirua eman ziguten. Trekkinga bukatu ostean, ordea, polizia gure bila etorri zen, frantziarrek lapur-

tu egin geniela esanez salaketa jarri zutelako; komisaldegira eraman gintuzten gure taldekoak eta porteadoreak, eta baita frantziarrak ere. Hiru egun eman genituen gertatutakoa azaltzen eta azkenean frantziarrei gehiagor dainarazi zieten. Esperientzia gogorra izan zen.

- **Iranen lehen aldiz izan zara...**

- Bai. 6.000 km. baino gehiagoko tourra egin dugu; ikusgarria da oso, Persia zeneko ehundaka mo-

"Trekking eta tour taldeetan gertatzen diren gertakizunak, ausartagoak dira. Auzo biterako, hiru neska bergarar...

numentu eta hiri ditu... eta erabat harrিতa geratu naiz. Telebistatik sartu diguten herri fundamentalista eta terroristarekin ez du zerikusirik. Oso jende normala da eta ez dugu inolako arazorik izan. Iranen botere erlijioso eta politikoa bat dira, gobernuá fundamentalista

da, baina herriak ez du hori bizi, inposatutako errealitatea da. Kanean polizia ibiltzen da errepresioaren bidez jendeak ohiturak gorde ditzan, adibidez, emakumeak kanean txadorrarekin ibiltzen dira, baina etxe-ko atarian sartu orduko bota egiten dute; alkoholik ezin da edan baina etxe guztietan daude alkohola destilatzen alantxak; kanpotarrak ondo hartzen dituzte, lanpostu garrantzitsuenak emakumeen esku daude, e.a. Pakistanen, berriz, (gobernu laikoa, baina oso herri erlijioso eta fundamentalista) bestelakoa gertatzen da. 5 urtetan egon naiz eta emakume batekin ere ez dut hitzegin, emakumea etxean sartuta dago... Kontraesan ugari dago, ustekabe-ko handia hartu dut.

- **Iranen bati ia beso moztu zioten zuri kamara lapurtzeagatik.**

- Bai, hoteletik lapurtu zidaten. Lapurra harrapatu eta sekulako jipoi eman zioten emaztea, alaba, hoteleko langile, zuzendari, beste polizia batzuk eta ni aurrean ginenela. Ez zuen onartzen lapurra bera zenik eta 3 egun eduki zuten aitortu



Egin dituen trekking-en bidez Iran bezalako herrialde bat gertutik ezagutzeko aukera izan du.

"Inurrategi anaiek mendiari ikuspegi berri bat eman diote"

iletxo
ileapaindegi mistoa
BEGOÑA ARZELUS
Fleming Doktorea, 7 BERGARA
☎ 76 53 15

BEHEKO TABERNA
Menestra eta konejora
dira gure berezitasunak
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

IKUSI
ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROKA
ETA OSAGARRIAK
Irizar, 2 ☎ 76 53 09

**genak emakumeak
Azkenean, esate
ziren Nepalera"**


arte. Nik uste nuen txikitu egingo zutela. Azkenean kamara berreskuratu eta dena bukatu zela uste nuenan dokumentu bat eman zidaten sinatzeko; sinatuz gero lapurrari eskua moztuko zioten -Iranen lapurretak oso zigortuta baitaude-. Beraz, nire esku zegoen lapurraren eskua moztea. Egoera latza zen, izan ere ikusitako errepresioa kontutan hartuta, ez banuen sinatzen ni egurtzeko gauza zirela ikusten bainuen. Azkenean hoteleko jabea sartu zen eta ez zioten moztu eskua.

- Trekkingen helburua dirua ateratzea bada, hor duzu Inurrategi anaien eredia: sponsorrak...

- Primerako mendizaleak dira eta estatuan mendiari ikuspegi profesionala eman dioten bakarrak. Telebista aldetik, sponsor aldetik... mendiari ikuspegi berri bat eman diote. Badakite zer nahi duten, zertan ari diren eta ondo funtzionatzen du hartu duten bideak.

- Zure kasuan sponsorrak eta lortzea zaila izango litzateke?

- Bai, alde batetik kontakto onak behar direlako. Bestetik beraiek urte osoko lana egin behar du-



Lasiter "Al filo de lo imposible" telebista saiorako irudiak grabatzera Himalayara joango da. Ametsak, berriz, asko ditu: Fitz Roy ekialdetik igo nahi du, Brainta Brak edo Ogro ere igo nahi ditu...


te bi hilabete kanpoan pasatzeko, nik urtean lau hilabete pasa nahi ditut, beste istorio bat da. Ez dakit... lehengoan Alberto Inurrategik esan zidan etxera itzuli direnetik 15 minutu ere ez duela egin etxean: bazkariak direla, elkarrizketak, erakusketak... Mendi bat igo eta bi urtean egunero mendi hari buruzko kontuak esatea gogorra da. Nik nahiago dut nire istorioak nik ordaindu, joan, eskalatu, etorri eta libre sentitzea. Gertatzen dena da horrek kostu ekonomiko gogorra eta mugak jartzen dizkizula, edozein menditara ezin zarelako joan. Adibidez, Everestera igotzeko baimenak 5 milioi balio du, beraz, nik ezin dut horrelako mendi batera joaterik pentsatu. Hala ere, beste mendi batzuk ere badaude. Norberak

ikusi behar du sponsorrekin eta nolako loturak nahi dituen.

- Zein asmo darabilzu une honetan buruan?

- Berriz ere "Al filo de lo imposible" grabatzen hasiko gara eta Himalayara joango gara, baina

oraindik ez dugu ezer garbi. Ametsak, berriz, asko ditut... Patagonian 1.500 metroko Fitz Roy ekialdetik igo nahi dut, Pakistanen Brainta Brak edo Ogro (7.200 m.koa, duela 15 urte behin igota dago) igotzea gustatuko litzaidake... ■



Trekking batek
300.000 pzta.tik hasi
eta 500.000
pzta.raino kostatzen
dezake.

**A
R
R
A
N
O**

Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

KONDE

**P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A**

Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

Euskal Herriko errekak errekeratu daitezkeela uste duzu?




Karmen Eguren
67 urte, etxekoandrea

Ez dut pentsatzen, zikinegiak daudelako. Urik ere ez doa eta oso nekez ikusten dut nik hori.



Carlos López
27 urte, langilea

Baietz uste dut. Guztiok gure partetik zerbait jartzen badugu behintzat bai. Lehenbizi enpresek ea depuradorak jartzen dituzten.



Xabier Elkoro
22 urte, langilea

Gaitza ikusten dut, enpresek oraindik depuradorak eta horrelakoak jartzen ez dituztelako. Gainera goiko herrietan ere borondate falta nabaritzen da.



Malu Irizar
39 urte, langilea

Ideiarik ere ez. Posible izango litzateke baina ez dut uste interes handirik dagoenik, bestela garbituko zituzten.



Maria Pilar García
30 urte, langilea

Espero dut baietz, oso egoera txarrean bait daude. Nere ustez garbitu egin beharko lituzkete, zerbait egin beharra dagoela ikusten da.



Olegario Adán
59 urte, langabetua

Posible dela uste dut. Langabezian dagoen jendea hartu eta garbiketan hastea izango litzateke onena.

LARUNBATETAN

LARUNBATETAN

INGELESA eta ALEMANA

KLASEAK HASTEAR DAUDE

APUNTATU ZAITEZ, ORAINDIK EZ BADUZU EGIN!!

LARUNBATETAN • LARUNBATETAN • LARUNBATETAN

9.30 - 12.30

9.30 - 12.30

9.30 - 12.30

Araba Etorbidea, 4
ARRASATE



HIZKUNTZAK

Telefonoak:
79 01 32 / 79 65 54

HARATEGIA- URDAITEGIA

Sebastian Imaz

Bildotsa, txahala eta
oilaskoak

Aranerreka, 1 ☎ 76 32 67 BERGARA

BERGARA

MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Uriarte, 8 BERGARA
☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxe: 76 04 77



Urte askotako lanaren ordaina

Aspalditik datorren kontua bada ere, azken egun haue-
tan komunikabideei esker jakin izan dugu Eusko jaurlaritzako Kultura Sailak eta AEKk hitzarmena sinatu dutela. Duela urte t'erdi gutxi gora-behera hasi ziren elkarrizketa edo eztabaidaren ardatzak zeintzuk izango ziren bideratzen eta zehazten.

Elkarrizketa prozesu orotan gertatzen den bezala, lehendabiziko pausoa borondatea izaten da. Behin hori gaindituz gero, alderdi ezberdinen arteko adostasuna lortu behar da. Eta egia esan, alderdi bakoitzak izaten du zer irabazi eta zer galdu. Hemen ere antzeko zerbait gertatu da.

Hitzarmena sinatu ahal izateko zenbait baldintza bete behar ziren. Hauen artean, irakaslegoaren homologazioa, zenbateko diru laguntza eman, Segurantzza Sozialarekin hartu beharreko konpromezua, e.a. Kontu hauek guztiak eztabaidatu ondoren, erabakiak hartu dira.

Akordioa lortzea, beraz, dirudiena baino askoz korapilatsuagoa izan da. Ez da nahikoa, ezta zuzena ere, komunikabideek kaleratu duten informazioa. Egia da AEKk diru laguntza jasoko duela eta beraien zentruak homologatzeko aukera izango dutela. Baina honek ez du esan nahi gaur egun dituzten arazo guztiak konponduko direnik. Irakasleei kontratuak egin behar zaizkie eta material berria erosi behar da beste zenbait gauzen artean. Jaso beharreko dirutza guztia, beraz, ez da etekin hutsa izango.

Ikas dezagun behingoz, gauzen alderdi onak eta txarrak ikusten eta halaxe adierazten.

Josune IÑARRA



Non eta gartzelan

Aurten, Akulu AEKk kontzertu bat antolatzeko aukera izan du. Eskaintza jasotakoan, oso gutxi pentsatu ondoren, gazteenen eritzia nagusitu zen: Bergararako, Anje Duhalde. Hasiera batean, erreztaldia frontoian egitea pentsatu zen, baina eguna heldu orduko... obrak amaitu gabe. Beste lokal bat topatu behar. Badago Bergaran emanaldirik egiteko toki aproposik? Azkenean Gartzela Zaharrera joan ginen entzuleok. Taun-Taunek antolatutako jaialdia ikusi genuenok izan ezik, beste guztiak harritu egin zituen han sortutako giroak.

Osteguna, egun txarra izan arren 50 bat pertsona bildu ginen. Gehienak gazteak, oso; abesteko, txalotzeko eta disfrutatzeke inolako lotsarik ez duten horietakoak. Nire ondoan zegoen batek "ze toki polita" esan zidan. Begirada bat eman nion etxeari eta berriro konturatu nintzen noizbait gartzela bat izan zela. Kontzertua "Amnistiaren lema" abestiarekin bukatu zuen Duhaldek.

Ostiralean, doinuaren oihartzuna oraindik buruan genukan bitartean, euskal presoen senide eta lagunak zermatzan autobusa geldiarazi zuten, eraso zuten eta Andaluziako gartzeletara iristea galerazi zioten.

Larunbatean, irriti eta egunkari guztietan agertu zen albiste. Kronika baino "interpretazio" gehiago artikuluetan. Halere ezinezkoa zitzaien tamainako irrazionalitatea izkutatzea. Zenbat jasan behar!! Ezin dut, eta ez dut nahi, irrazionalen izenean barkamena eskatzea. Baina euskal preso guztiei eta hauen senideei nire elkartasuna adierazi nahi diet.

Aurrera, aurrera, bolie... gartzela guztietan bakarrik kontzertuak aurkitu arte.

Nora PALMITANO

BIZKOTXOAK. ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9. Teléfono. 761051.

R. S. I. 209374 - SS

BERGARA

TOSHARE

☎ 76 29 70

SANTOS IRRATI-TB

**ELEKTRAGAILUAK
SUKALDE ALTZARIAK
ARGIZTAPENA
ANTENA KOLEKTIBOAK
TB, BIDEO ETA SOINU
APARAILUEN
KONPONKETA**

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10



■ Arruriagako emakumeak

Igandean Arruriagako emakumeak bildu ziren Antxoni jatetxean egindako bazkarian. Ume denboran Arruriaga kalean jolasten ibiltzen ziren emakume guztiei deitzea okurritu zitzaien eta deialdiak ustekabeko erantzuna jaso zuen, **42 lagun** bildu baitziren domekan. Bazkალაurretik meza izan zuten Santa Marina elizan. Bazkalostean tertulia luzea izan zuten orduko jolasak, anekdotak eta gorabeherak komentatzeko. Biltzen ziren lehen aldia zen eta konbokatoriaren arrakasta ikusirik ziurrenik ez da azkena izango. Hurrengora arte!!

■ Ange Duhalde

Ange Duhalde kantariak emanaldi bat eskeini zuen aurreko ostegunean Kartzela Zaharrean. **AEK Akulu Euskaltegiak** ekarri zuen Iparraldeko kantaria, Diputazioak euskaltegiei egiten dieten eskeintza aprobetxatuz. Ikusleek Errobiko partaide ohiaren betiko abestiekin primeran pasatu zuten.



■ Peña Osako afaria

Txirrindularitza denboraldia amaitu ondoren, Angiozarko Peña Osako ki-deek afaria eskeini zieten **Unai** eta **Aitor Osa** anaiei aurreko ostegunean Ortzi erretegiari. 30 bat lagun bildu ziren afañian eta Unai eta Aitorrek denboraldiaren inguruko gorabeherak eta anekdotak eman zizkieten bere jarraitzaileei. Futbolak ere bere tarteia izan zuen, izan ere **Agustin Aranzabal "Gaztelu"** ere bertan izan baitzen. Semea ezin izan zen etorri eta aitak oraingoa baino Real hobeago bat ekarriko zuen gogora...



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

zumelaga

JATETXEA

EZKONTZAK, DESPEDIDAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, MENU BEREZIAK...

etorri eta galdetu!!

ONENA

TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA

■ **Elkanotarrak eta Iparragirretarrak**

Aurreko ostegunean Antzuolako **Gotzon** eta **Miren Karmele Iparragirre** anai-arrebak, **Xabier San Sebastian** hauen lehengusua eta **Gorka Garitano** Miren Karmeleren laguna ETBko Miramongo estudioetan izan ziren "Elkanotarrak" saioa grabatzen. Erronka proban **Xabier Leston** gazteak lagundu zien. Hasierako nerbioak gainditu ondoren, guztiek primeran pasa zuten Anne Igartiburuk eta Jon Anduezak

aurkezten duten programan. Gorbea inguruko nekazal turismoko baserri batetan astebukaera bat igarotzea irabazi zuten. Saioa azaroaren 8an 10etan emango da. Aste honetan bertan Elkanotarrak saioan bergarar familia bat izan zen asteazkenean. Azkenaldian telebistan aurpegi ezagun asko ikusteko aukera izan dugu...



Zertan dihardute ba?



Iñigo Igartua 27 urteko txirrindulari bergararrak aurtengo ziklo-kross denboraldiko lehen garaipena lortu zuen asteazkenean Leioan. Iñigo hasieratik nagusitu zen eta helmugan 32 segundu atera zizkion Ripolin taldeko David Secori eta minutu bat eta 35 segundu Armadari. Iñigo Igartua Flanders-Chesini taldearekin hasi da korritzen baina, Banestoren ezezkoa jaso ondoren, Galiziako aurrezki kutxa batekin korritzeko aukera haundiak ditu. Datorren azaroaren 12an Venezian izango den Munduko Kopako hirugarren proban hartuko du parte eta hilaren 19an Duranako nazioarteko proban.

■ **Despedida afaria**

Mari Carmen Fernández 17 urtez **Mizpirualde** Erresidentzian sukaldari egon den bergararrari despedida eskeini zioten bere lankideek. Guztira, 20 lagun bildu ziren Azpeitxi jatetxean egindako afarian. Afalostean guztiek brindisa eskeini zioten Mari Carmeni agur modura. Argazkian **Ana Pescador** (ezkerrean) eta **Lucia Cuestaren** artean ikus dezakezue. Zorionak!!



KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •

Amet's



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
- Zango erremolkeak
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak


Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

Jose Antonio Fernández

Taboadelan (Orensen) jaioa, Jose Antonio Fernándezek (52 urte) bergarartzat dauka bere burua. Dagoeneko 33 urte bete ditu lehenbizi Vergaresan eta orain Pesan lanean eta gaur egun Bergarako Estazio burua da.

- Gidatzeko karnetik baduzu?
- Ez.
- Autobusak erabiltzen dituzu?
- Gutxi mugitzen naiz baina tokatzen zaidanean bai.
- Non jartzen zara, aurrean ala atzean?
- Aurrean.
- Txoferrekin hitzegiten duzu?
- Gustatzen zait bai..
- Puntualak al dira Pesako autobusak?
- Posiblea den neurrian bai.
- Zertan hobetu behar du Pesak?
- Ez noa ezer esatera...
- Keja asko jasotzen al dituzu?
- Ez. Azkenaldian beharbada gehiago ordutegi aldaketagatik...
- Zeintzuk kejatzen dira gehien?
- 30-50 urteko emakumeak.
- Zein da linearik erabiliena?
- Bergara eta Gasteiz artekoa.



"Gutxi mugitzen naiz baina tokatzen zaidanean autobusean ibiltzen naiz. Trena ere gustatzen zait. Ez ditugu keja asko jasotzen, azkenaldian ordutegi aldaketagatik ugaldu diren arren. Inguruko errepideei 5 bat emango nieke".

- Badago linea defizitariorik?
- Ez dut kontabilitatea ezagutzen baina Bergara-Zumarraga igual...
- Jende gehien noiz?
- 7etatik 9etara eta ordubietatik 3retara.
- Bidaien prezioekin ados?
- Bai.
- Zein da autobusik onena?
- "Scania century"a.
- Puntuatu errepideak.
- 0tik 10era 5 bat emango nieke.
- Eta Bergarako geltokiari?
- 10 bat.
- Leku onenean dago?
- Nere ustez bai.
- Autobusez gain zein garraio mota erabiliko zenuke?
- Trena. Abioian ez noa ibiltzera eta barkuan mareatu egiten naiz.
- Bidaia orduak nola igarotzen dituzu?
- Periodikoak irakurriz.
- Hobby bat?
- Mendan ibiltzea..
- Domu Santu ospatzen duzu?
- Lana daukat, ez dugu ospakizun berezirik egiten.
- Zer ez zenioke lagun bati barkatuko?
- Gezurretan aritzea.
- Gripearri beldurrik?
- Ez, sekula ez dut izan.
- Zer da zorientasuna zuretzat?
- Trankil bizitzea eta familiarekin ondo konpontzea.

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Pepelu

Ilepaindegia

Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi ☎ 76 15 09

**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

ETXEBIZITZA

Pisua salgai Bidekurutzeta. 50 m2. Berriztuta.
☎ 71 53 49 (20.00-22.00).

Aranerrek **pisua** salgai.
☎ 76 00 39/79 27 68.

Garaje bat alokatzen da.
☎ 76 55 50.

Pisu eguzkitsua eta berria salgai. ☎ 76 01 96.

Bi gelatako pisua alokatuko nuke. ☎ 76 21 43 (Igone).

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Garajea alokatuko nuke Santa Marinaran. ☎ 76 37 69.

Garajea salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

Pisu edo ganbara bat alokatuko nuke. ☎ 76 47 85.

Lokala alokatuko nuke Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 69.

Etxea salgai Osintxun. ☎ 76 28 70.

Pisua salgai Antzuolan. ☎ 76 60 39.

Garajea alokatzen da Mas-terrekan. ☎ 76 45 10.

Pisua salgai Joan XXIII plazan. ☎ 76 27 80.

Pisu eguzkitsua salgai Maduran. ☎ 76 27 96.

DENETARIK

Vespa Iris 200 motorra salgai. ☎ 76 08 51.

Urrezko pultsera bat galdu dut San Antonio inguruan. ☎ 76 24 72..

Karretetako bizikleta salgai. Prezio interesgarria. ☎ 76 60 69.

Honda CBR 600 motorra salgai. ☎ 76 25 50.

Mendiko bizikleta salgai. ☎ 76 15 76 (Xabi).

Bi motozikleta (GAC Kanowey) salgai. ☎ 78 70 98 (Arantza).

Bultaco cross motorra, Axo trajea, botak eta kaskoa salgai. 60.000 peze-
ta. ☎ 76 31 40 (Miguel).

Motozerra elektrikoa salgai. ☎ 76 29 95.

Sukalde berri berria saltzen dut. Prezio interesgarria.
☎ 76 21 55 (eguerdian).

Flauta trabesera egoera onean salgai. ☎ 76 35 56.

Organo txiki bat erosiko nuke. ☎ 76 24 54.

Masaje zerbitzua etxez etxe. ☎ 76 41 35 (Virginia).

Urrezko kolgante bat (egiptiar jeroglifikoa) galdu dut. ☎ 76 18 27.

Dibujo mahaia, taburetea, akuarela ekipoa eta pintzelak saltzen ditut. ☎ 76 36 22.

LANA

Aleman klaseak ematen dira. ☎ 76 12 77 (Maite).

OHOko klaseak ematen dira. ☎ 76 11 89 (Enmanuel).

Matematika, fisika eta kimikako klaseak. ☎ 76 44 34.

Aleman diplomatuak klaseak emango lituzke. ☎ 76 04 93 (Idoia).

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Etzeko lanak egin edo haurrak zaintzen ditut. ☎ 79 93 17.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Gutxitu psikikoen hezitzaile batek gutxituak, zaharrak edo haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 52 08.

Etzeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89 (Rosario).

Esperientziadun neska batek etzeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 08 82 (Isabel).

Esperientziadun neska batek ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 28 16.

Matematika eta zientziatako klaseak. ☎ 76 31 31 (Juanma)/ 76 45 80 (Andoni). Barrenkalea 13, 3.a.

Esperientziadun peluke-
ra bat behar da. ☎ 76 56 69.

Ingenieritza ikasten diharduen mutil batek OHO, BBB eta UBiko **partikularrak** ematen ditu. ☎ 76 53 88 (Pedro).

Matematika, zientziak eta diedriko klaseak (UBIra arte). ☎ 76 24 31 (Eneko).

ESNAOLA

igeltseritza



igeltseritza eta pintura lanak

☎ 76 10 84

**LONBIDE
OINETAKOAK**Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA****Goierri****AUTOGIDARIEN ESKOLA**Fraiskozuri Plaza, 5 **BERGARA** ☎ 76 41 50**ZURUTUZA**

HARATEGIA • URDAITEGIA

Urteaga kalea, 9 **BERGARA**

☎ 76 08 68



"Zuzeneko musika gustatzen zait, baina aurten Udazken Kulturala pobre samarra da musikari dagokionez"

"Orfeoian hutsune bat nabaritzen dugu 20-35 urtekoen artean. Gazteak animatu nahi ditut"

MARIA JESUS UGALDE, SOPRANO

"Erabakitzerako orduan musikaren ordeztze ingelesa aukeratzen dute haurrek"

Maria Jesus Ugaldek (30 urte) txikitatik du abesteko eta musikarako zaletasuna. Aritzeta abesbatzan ibilia, gaur egun Orfeoiko eta Capilla Peñafloidako kidea da. Musika Eskolan akordeoi eta kantu klaseak ematen ditu.

- Noiztik Capilla Peñafloidan?

- Orain dela lau urte ekin nintzen. Koru eta orkestra zuzendari, abeslari profesional edota musika irakaslez osatutako koru txiki bat da, 20 bat lagun ez osatua. Zuzendaria Jon Bagües da. Gasteizen dugu entsaiu lekua eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako abeslariak biltzen gara bertan. Euskal Herriko antzinako musika berreskuratzeko asmoarekin sortu zen. Estatuan zein atzerrian ibiliak gara.

- Txikitatik izan zara musika zalea...

- Bai, zortzi urterekin edo hasi nintzen solfeo ikasten. Gero, pianoa eta akordeoia... Dena dela, etxean ez zuten sienisten musikatik bizi zitekeenik eta institututik irten nintzenez ingenieritza ikasten hasi nintzen. Bi urte eman ondoren utzi egin nuen eta musikan buru-



Elly Amelling, Mireia Freni edota Alfredo Krauss dituzten musikariak.

belarri sartu nintzen. Pozik nago hartutako erabakiarekin, musikak dedikazio osoa eskatzen du eta. Donostian amaitu nituen goi mailako musika ikasketak eta Zaragozako kontserbatorioan eman nuen urtebete erakusten. Han erabaki nuen kantu ikasketak ere egitea. Italian eta Katalunian ere hainbat ikastarotan hartu dut parte.

- Nola ikusten duzu Orfeoia gaur egun?

- David Azurza zuzendariak ilusio handia sartu digu, gauza berriak erakutsi nahi digu eta. Jendeak kezka ditu eta solfeo eta kantua ikaste-

ari ekin dio. Txarrena da abeslari berriak behar ditugula. Hutsune bat nabaritzen dugu 20-35 urtekoen artean. Gazteak animatu nahi nituzke Orfeoira etortzeko. Probatzen badute gustatuko zaie.

- Zer deritzozu Musika Eskolaren lanari?

- Uste dut lan ona egiten ari dela. Kanpora beste kontserbatorio batzuetara joaten naizenean harritu egiten dira hemen ditugun, orkestra eta taldeak aipatzen ditudanean.

- Haurren hezikuntza behar duen inportantzia ematen zaio musikari?

- Ez dut uste. Eskolatik kanpo haurrak saltsa askotan sartuta daude: ingelesa, dantza, musika, kirola..., eta saturatu egiten dira. Erabakitzerako orduan, ingelesari ematen zaio garrantzia haundiagoa.

- Musika entzuten al duzu?

- Bai zuzeneko gustatzen zait, grabatutako truko asko ditu eta. Astia dudak bakoitzean zuzeneko emanaldiak ikustera joaten naiz. Aurten, bestalde, Udazken kulturalerako programa musikari dagokionez pobre samarra da, antzerki gehiago sartu dute eta...

"Musika Eskolan lan ona egiten ari dela uste dut. Kanpora, beste kontserbatorio batzuetara, joaten naizenean harritu egiten dira hemen ditugun orkestra eta taldeak aipatzen ditudanean"



1. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. ERROTAGAIN	7	3	11	7
2. MONGATXURRA	6	3	14	2
3. OGIZUN	6	2	7	3
4. BERGATRANS	6	3	10	7
5. MADURA INDUSTRIAS GOL	6	3	12	3
6. BAR CANALEJAS	6	3	7	4
7. KABIA	6	3	6	4
8. OZAETA	3	3	7	10
9. ORTZI	3	3	5	8
10. ARLOTEAK	1	2	1	4
11. BILDURBAREK OPEL/LAM	0	3	6	11
12. UFALA	0	3	3	20

2. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. AUTOBEREZI	9	4	22	9
2. OH ZEREZOS	7	3	34	12
3. ETXAGI	7	4	29	17
4. PAGOMENDI	7	3	13	6
5. A ZE FLAXA	6	3	10	17
6. UVE BIKOITZA	6	3	11	8
7. KAYAK OS JARDINEIROS	5	4	19	15
8. HARTU ZAMAK	4	3	6	7
9. NAHIKARI HOOLIGANS	4	3	13	15
10. INDAR GORRI	1	2	2	5
11. ERI	0	3	9	12
12. HALTZARI	0	4	7	25

3. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. CONSTRUC. BERGARA	7	4	20	12
2. AMOZKIBAR	7	4	12	6
3. SOROPOTROAK	6	3	27	12
4. MOSKIS	6	2	10	4
5. LA JUVE	6	3	16	13
6. NEKROFILIKOS	6	3	11	8
7. SHAKTALE	6	4	9	10
8. EZINLEIKE	5	5	12	8
9. KIROLZALEAK	4	4	6	5
10. ARI ARI	3	3	16	22
11. EH BITERRAK	1	4	4	27
12. IGANDEKOAK	0	2	10	12

4. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. FAC	9	3	17	7
2. GUADALEST	9	3	14	7
3. TXIPIRON	6	3	14	9
4. PATXARAN TEAM	6	3	16	9
5. PATA NEGRA	4	3	9	13
6. OSINTXU	3	3	9	16
7. ALDOKA MALDOKA	3	2	20	7
8. PJS	3	2	8	4
9. MATXAKATEGI	1	3	10	16
10. LABEGARAIETA	0	2	1	7
11. XURRUPAK	0	3	5	24

TALDEAK



Bar Canalejas Rober Elkorobarrutia, Jose Gómez, Jesus Mari Román, Julio Blázquez, Jose Mari Martínez, Enrique Díaz, Jorge Muruamendiaraz, Pedro Sánchez eta Jose Blancok osatzen dute. Txapelketa Eusebio II izenarekin hasi zuten, baina duela bi urte Bar Canalejas daramate. Talde hau txapelketako historikoa dugu, 2 urtetan txapeldu izan baita. Halere, azken urteetan ez dabil oso fin, baina aurtengo denboraldian zerbait egiteko aukera dutela esan digute. Futbitoaren gauzarik onena jokatzea eta aldageletan egiten dituzten txisteak direla aitortu digute.

PARTIDUAK

LARUNBATA BARRUAN

09.00: Labegaraieta-Pata Negra • PJS
10.00: PJS-Aldoka Maldoka • Pata Negra
11.00: Soropotroak-Ari Ari • Aldoka Maldoka

LARUNBATA KANPOAN

10.00: OH Zerezos-Eri • Pagomendi
11.00: Pagomendi-Uve Bikoitza • Eri

IGANDEA BARRUAN

09.00: Txipiron-Patxaran Team • Shaktale
10.00: Kirolzaleak-Shaktale • Txipiron
11.00: EH Biterrak-La Juve • Kirolzaleak
12.00: Arroteak-Ozaeta • EH Biterrak
13.00: Construcciones Bergara-Moskis • Arroteak
16.00: Ezinleike-Nekrofilikos • Guadalest
17.00: Guadalest-FAC • Nekrofilikos
18.00: Bar Canalejas-Bergatrans • FAC
19.00: Ufala-Errotagain • Bergatrans
20.00: Matxakategi-Xurruapak • Ufala

IGANDEA KANPOAN

09.00: Matxakategi-Xurruapak • Indar Gorri
10.00: Indar Gorri-Hartu Zamak • Matxakategi
11.00: Ogizun-Mongatxurra • Hartu Zamak
12.00: Madura-Bildurbarek • Mongatxurra
16.00: Nahikari Hooligans-A Ze Flaxa • Ortzi
17.00: Kabia-Ortzi • A Ze Flaxa

EMAITZAK

1. MAILA

ERROTAGAIN-ARLOTEAK	4-1
KABIA-OZAETA	4-2
OGIZUN-ORTZI	3-1
BERGATRANS-BILDURBAREK OPEL/LAM	5-3
MADURA-UFALA	5-2
MONGATXURRA-BAR CANALEJAS	0-1

2. MAILA

A ZE FLAXA-HARTU ZAMAK	5-2
PAGOMENDI-AUTOBEREZI	8-2
OH ZEREZOS-KAYAK OS JARDINEIROS	7-7
NAHIKARI HOOLIGANS-ERI	4-3
HALTZARI-ETXAGI	3-4
INDAR GORRI-UVE BIKOITZA	0-3
HALTZARI-AUTOBEREZI	0-4
ETXAGI-KAYAK OS JARDINEIROS	6-5

3. MAILA

IGANDEKOAK-ARI ARI	4-7
AMOZKIBAR-LA JUVE	3-4
EH BITERRAK-KIROLZALEAK	3-4
CONSTRUCCIONES BERGARA-NEKROFILIKOS	1-3
SOROPOTROAK-EZINLEIKE	3-2
MOSKIS-SHAKTALE	6-1
EH BITERRAK-EZINLEIKE	1-1
AMOZKIBAR-SHAKTALE	3-0
CONSTRUCCIONES BERGARA-ARI ARI	5-3

4. MAILA

LABEGARAIETA-PJS	0-5
MATXAKATEGI-PATXARAN TEAM	4-6
GUADALEST-OSINTXU	4-2
TXIPIRON-PATA NEGRA	4-5
FAC-XURRUPAK	5-2

TALDEAK



Ortzi taldea Carlos Marzana, Fernando Marzana, Iñaki Arizmendiarrrieta, Gorka Elortza, Bikentzi Arregi, Aitor Pagaldai, Jose Luis Gallastegi eta Jose Angel Arriaranek osatzen dute. Angiozarkoak dira guztiak eta Labegaraietan jokatzen hasi baino lehen, Elgetako txapelketan aritzen ziren. Iaz denboraldi borobila egin zuten, Liga irabazi eta kopako txapelketan finalera heldu baitziren. Talde honek "egurzale" fama du txapelketan, baina eurek esan digutenez. "Gu ez gara monjak, baina batzuk fama dugu eta beste batzuk, ostera, ez dira gora begira geratzen, eman egiten dute".

Kuadrilen arteko olinpiadak

Bailarako 16 urtetik gorako edozeinentzat

Deba Garaiko kirol zerbitzuek bailara mailako kuadrilen arteko Olinpiadak antolatu dituzte. Bertan 16 urtetik gorako kirolari federatu edo ez federatuak parte hartu dezakete.

Guztira bost kirol ezberdin izango dira (areto futbola, pala, saskibaloia, eskubaloia, igeriketa) jokoan eta talde guztiek kirol bakoitza egin beharko dute taldeka. Talde bakoitza 8tik 12ra bitarteko kirolarikin osatu beharko da eta izena ematerakoan 3.000 pzta ordaindu beharko dute.

Olinpiaden lehen fasean herri bakoitzean jokatuko dira probak eta

onenak, bailarako beste herrietan sailkatutakoen aurka jokatzeke aukera izango dute.

Herri bakoitzetik zenbat sailkatuko diren biztanle kopuruaren arabera egingo da eta horrela, Bergaratik 2 talde sailka daitezkeen bitartean, Antzuola eta Elgetatik partaide bana.


Abenduaren 5a baino lehen, izen-ematea

Txapelketan parte hartzeko Udaleko Kirol Zerbitzura jo beharko da abenduaren 5a baino lehen. Finalei dagokienez, Arrasaten igeriketa eta pala jokatuko dira, Ber-



Bergaran eskubaloia finalak jokatuko dira.

garan, berriz, eskubaloia, eta azkenik, Oñatin areto Eskoriatzan sakibaloia futbola.



Emakumeentzako kirola aztergai

Azaroaren 16an, Bergaran, Deba Garaiko Kirol Politikari buruzko III. Topaketen barruan "Emakumeentzako kirol aisialdia" aztertuko dute hainbat adituk. Topaketak Udaletxeko pleno aretoan izango dira eta goizeko 9etatik arratsaldeko 6,30etara bitartean emakumea eta kirolari buruz arituko dira. Bertan parte hartzeko Udaleko Kirol Zerbitzura jo beharko da. Emakumeen elkarteek, klubek eta ikasleek 4.000 pzta. ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 7.000 pzta. Prezioan bazkaria sarturik dago eta izena emateko azken eguna datorren ostirala, azaroak 10, da.

Areto futboleko ikastaroa antolatuko du Kirol Zerbitzuak

Azaroaren 17, 18, 24 eta 25an areto futbolaren inguruko ikastaroa antolatu dute mankomunitateko kirol zerbitzuek. Ikastaroak 20 orduko iraupena du eta Eskoriatzako kiroldegian burutuko da. Ostiralean areto futbolaren inguruko teoria landuko da eta larunbatetan, berriz, teoria eta praktika tartekatuko dira. Klase teorikoak Eskoriatzako Kultur Etxean izango dira. Kirol Zerbitzuko kideek 4.000 pzta ordainduko dute eta gainontzekoek 5.000 pzta. Informazio gehiago jasotzeko Kirol Zerbitzura jo edo 77 91 35 telefonora deitu.



FUTBOL PARTIDUAK

◆ Bergara-UDA

Preferente maila.
Iganeda, 15.45. Agorrosin.

◆ Bergara-Euskalduna

Ohorezko mailako jubenilak.
Larunbata, 15.45. Ipintza.

◆ Bergara-Mollari

Lehen mailako kadeteak.
Iganeda, 11.00. Ipintza.

◆ Bergara-Tolosa

Lehen mailako infantilak.
Iganeda, 9.30. Ipintza.

ESKUBALOI PARTIDUAK

◆ Bergara-Jauja

Jubenil mutilak
Larunbata, 18.30.
Labegaraieta kiroldegia.

SASKIBALOI PARTIDUAK

◆ Ibili Bergara-Goierrri A

Senior mutilak.
Larunbata, 16.15.
Labegaraieta kiroldegia.

◆ Bergara-Athletico S.S.

Kadete neskak.
Larunbata, 12.15.
Labegaraieta kiroldegia.

FUTBOLIN MASTERRA

LAMek futbolin masterra antolatu du. Azken faserako sailkatzeko ligak Arrano, Ollagorra eta Pol-Pol tabernatan jokatu dira. Taberna bakoitzeko hiru lehenengoak sailkatuko dira. Izen-ematea doan da eta masterra irabazten duenak Opel Corsa bat jasoko du.

BEHOBIA-DONOSTIA

Azaroaren 12an jokatu den Behobia-Donostiarako autobusa antolatu du Zaleak taldeak. Interesa duzuenok deitu telefono hauetara: 76 20 31 eta 76 32 39.

Karlos Aldai

Antxintxiketan bidea eginez

Carlos Aldaik 16 urte ditu eta urte t'erdia ramatza korrika egiten. Orain arte ez du postu oso onik lortu izan, baina duela 15 egun Eskoriatzan jokaturako kro-sean bigarren postua lortu zuen. Azkenaldian herriko korrikalari batek lorturiko emaitzarik onenatarikoa.

- Noiz eta zela hasi zinen atletismoan?

- Duela urte t'erdia erabaki nuen kirolen bat egitea, zeren bestela arratsalde osoa telebista ikusten ematen bainuen. Orduan atletismoan hastea erabaki nuen eta gustora nabil. Atletismoa ez da futbola edo saskibaloia modukoa, baina zenbat eta gehiago egin, hainbat eta politagoa da.

- Ze distantzian lortu zenuen bigarren postua?

- 2 km t'erdia antxintxiketan egin behar izan genuen. Normalean lasterketak 4 kilometrotakoak izaten dira eta kadete kategorian korritzen nuen azken lasterketa izan da. Orain, juniorretara igoko dut eta hor berriz ere azkenengo postuetara ohitu beharko naiz.

- Nolako izan zen Eskoriatzako lasterketa?

-Hasieran oso urduri irten nintzen eta hasieratik lehen postuetan jarri nintzen eta ia konturatu barik bigarren egin nuen. Pentsatzen nuen atzean geratzen zirenak indarrak gordetzen ari zirela gero-rako, baina amaieran 2.


egin nuen. Ilusio handia egin zidan, ez bainuen hori espero. Beti ibiltzen baikara erdialdetik atzera eta arrasatearrak lasterketa gehienetan irabazten digute eta behingoagatik gu aurretik sartu ginen.

- Zer sentitzen da podiumean?

- Oso gustora. Kopa eman zidatenean ez neki en eskua nola eman edo zer egin. Horrezaz gain, etxera joan eta 2. egin dudala esatea edo atzealdean heldu naizela, badago diferentzia, ez?

- Gehien gustatzen zaizun modalitatea?

- 4 km.tako krosak asko gustatzen zaizkit. Pista, aldiz, ez zait batere gustatzen. Jendeak uste du pista krosa baino errazagoa dela, baina niretzat askoz gogorragoa da. 600 metrotan dena eman behar baituzu eta ez daukazu errekuiperatzeko aukerarik. Gainera, behin azken gelditu nintzen eta horrezaz gain, batek ikulunduarekin jo eta pista-tik bota ninduen. Ez dut gomuta onik pistarena.



Bergarar gazteak bigarren postua lortu berri du Eskoriatzako kro-sean.

"Jendeak uste du pista krosa baino errazagoa dela, baina niretzat askoz gogorragoa da"



Institutuan...

Orain 12 bat urte Batxilergo Institutuan ateratako argazkia da goikoa eta bertan agertzen diren ikasleak lehen mailan ibiliko ziren orduan. Arbelean ikusten diren hiruki, angulo, tangente edota mahaien gainean agertzen diren kartaboi, eskuadra eta konpasengatik antzematen denez, dibujoko klasean zirela erretratatu zituen Imanol Iriagarai Institutuko erlijio irakasle eta *fotografo ofizialak*. Ordutik, gehienek ez dute aldaketa gehiegirik jasan baina baten batekin sorpresa eramango duzue. Horra hor argazkian, ezkerretik eskumara, agertzen direnen izenak.

Zutik: Jon Muniategi, Joxe Biteri, Paul Garitano, Andres Arbulu, Angel Osinalde, Pedro Laskurain, Amaia Mendibil, Itziar Muniategi, Maria Mendibil, Iker Beistegi eta Angel "Canario" irakaslea.

Bigarren ilaran: Felix Agirre, Alex Arroyo, Jaio Manzanedo, Amaia Irizar, Maite Irizar, Leire Aretxaga eta Iosune Azkarate.

Aurreko ilaran: Ibon Bilbao, Gorka Belastegi, Miren Karmele Iparragirre, Leire Lonbide, Itziar Irureta, Olatz Totorikaguena eta Maite Unanue.

Argazkia: Jon Muniategiandikoetxea

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atekak, manparak...

Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik



Erakusketak: Masterreka 14, behea BERGARA
Fabrika: Zigarroia 1, 8. pabiloia ARRASATE
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

ZUBIETA

elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



Altzarien dekorazio eta erakusketa

- BETIKO LEIHOAK GAURKO TEKNOLOJIARI EGOKITUTA
- EZ HOTZIK, EZ ZARATARIK, EZ URIK!!
- LEIHO TERMOAKUSTIKOAK
 - ATEAK
 - ARMAIRUAK
- EGURREZ EGINDAKO LANAK



AROSZTEGIA

UGARTE

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

San Juan auzoa 1 A 6. moduloa (Barruti)
Telefonoa eta Faxe: 76 54 91

**ZATOZ GURE
ERAKUSKETA IKUSTERA**

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18



Iturgintza

arrañaga s.l.

Matxiategi, 16 ☎ 76 29 97 - 76 04 22 20570 BERGARA


URA

GASA


BEROGINTZA

GIROTZE SISTEMAK

Dagoeneko jar ditzakezu giro atsegin eta erosoaz gozatzeko aukera emango dizuten aire-girotzailea. Udan nahiz neguan mandoaren bidez hotzberoa, hezetasuna eta aireztapena programatu ahalko dituzu.




◆ MURALAK



◆ ZAPAI-ZORUA



◆ LEIHOAK



◆ KONDUKTOAK



**ADI ORAIN!!
Erraztasunak ematen
dizkizugu ordaintzerako
orduan: BOST URTETAN
ORDAINTZEKOA!!**